BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

2776

AGINDUA, 2013ko apirilaren 19koa, Segurtasuneko sailburuarena, Ogasun eta Finantzetako sailburuarengan eskuordetzen duena Segurtasun Saileko administrazio-zentroak 2013-2015 urteetan posta-zerbitzuen kontratazioa.

Aintzat hartuz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuko V. Kapituluan eta 192/2013 dekretua, apirilaren 9koa, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzeko 12.d) artikuluan xedatutakoa, Baliabide Orokorren Zuzendaritzari dagokio kudeaketa zentralizatuko eraikinetako kontratazioa egitea, hain zuzen ere, Baliabide Orokorren Zuzendaritzari izendatu eta erabilpen orokorrekoak diren material edo zerbitzuena.

192/2013 Dekretuko 12.a) artikuluak honako hau ere egozten dio Zuzendaritza horri: erosketa zentralizatuko ondasun eta zerbitzuen kontrataziorako prozeduren garapen-proposamena.

Une honetan uste da posta-zerbitzuak modu zentralizatuan kontratatzeak hobetu egiten duela zerbitzuen kudeaketa eta egokitu egiten duela gastu publikoa.

136/1996 Dekretuaren 19. artikuluan, bestalde, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren eskumenak kudeaketa zentralizatua ez duten beste eraikin batzuetara hedatzea ahalbidetzen da. Hedapen hori gauzatzen da hitzarmenen bidez, administrazio-klausula zehatzen pleguetan aurreikuspen berariazkoak eginez edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako formulen bidez.

Eskumenak eskuordetzeko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 13.1 artikuluan aurreikusitakoa da aipatutako eremuan gas naturalaren hornidura egiteko kontratazioa espediente bakar batean egiteko formula egokia (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena). Hau xedatzen du artikulu horrek:

«1.– Herri-administrazioetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzan eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira, nahiz eta bata bestearen mendekoa ez izan, edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden zuzenbide publikoko erakundeetakoak badira».

Kontratazio arloan 192/2013 Dekretuko 3.2.f) artikuluak Ogasun eta Finantzetako sailburuari egozten dizkion eskumenak aintzat hartuz, eta 194/2013 Dekretuak, apirilaren 9koa, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa, Segurtasuneko sailburuari ematen diola kontratazio eskumenak beste organo batzuei esleitu ez bazaizkie bederen, eta hargatik eragotzi gabe arlo honetan Jaurlaritzaren Kontseiluari edo kanpoko Euskadiren kanpoko ordezkaritzetako titularrei dagozkien eskumenak.

EBAZTEN DUT:

I.– Ogasun eta Finantzetako sailburuarengan eskuordetzea 2013-2015 urteetan posta-zerbitzuen kontratazioa egiteko eskumena.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 14. artikuluan aurreikusitako eta kontratuari aplikatzekoak diren ondorengo arloetara hedatuko da eskuordetzea:

– Kontratua prestatzea (II. Liburua).

– Kontratua esleitzea (III. Liburua, I. Titulua, I. Kapitulua).

– Administrazioak kontratua aldatu, iraungi, laga eta azpikontratatzeko dituen eskumenak, IV. Liburuko I. Tituluaren I. Kapituluan oro har arautzen direnak eta, hornidura-kontratuetarako, IV. Liburuko II. Tituluaren IV. Kapituluan berariaz aurreikusten direnak.

– Kontratua formalizatzea (III. Liburua, I. Titulua, I. Kapitulua).

II.– Kontratazio-organoari dagozkion gainerako eskumenak, eta bereziki, emandako zerbitzuen gauzapenari oniritzia emateko eta zerbitzuak ordaintzeko agindua emateko ahalmena organo eskuordetzaileak izango du.

III.– Eskuordetze hau izenpetu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 19a.

Segurtasuneko sailburua,
ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRÓNIZ.